

Ipar Euskal Herriko hots dardarkariak: Hazparneko libertimendua aztergai¹

*Trills in the Northern Basque Country: The Libertimendua of Hazparne as a
case study*

Oroitz Jauregi*

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Irati Urreta Elizegi

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

ABSTRACT: This article investigates ongoing segmental variation in the production of trills in the Northern Basque Country. Specifically, it examines the apparent replacement of the alveolar trill by its uvular counterpart and assesses whether this sound shift has reached completion. Drawing on historical attestations that suggest such variation is not a recent phenomenon, the study provides a detailed account of the current state of the system, based on both empirical data and reference materials.

We analyze the pronunciation of trills among speakers from Hazparne (Lapurdi), using a corpus of performances by participants in the *Libertimendua* (carnival performance) aged between 16 and 30, recorded in 2024. The results show that while the uvular trill is predominant among young speakers in Hazparne, the alveolar trill continues to be employed in certain contexts and character portrayals during these performances. This suggests that young speakers from Hazparne are not only capable of perceiving the alveolar trill but can also produce it intentionally. Although it no longer features in their everyday speech, it remains an available

¹ Ikerketa *Gazte ahotsak* proiektuaren (US23/15) baitan burutu da. Eskerrak eman nahi genizkieke Miren Lourdes Oñederrari eta *ASJU* aldizkariko kanpoko bi ebaluatzaile anonimoei, artikuluan zehar egindako ohar eta ekarpenek testua aberastu dutelako.

* Oroitz Jauregi. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 - 01006 Vitoria-Gasteiz - oroitz.jauregi@ehu.eus -  <https://orcid.org/0000-0001-7027-3387>

and consciously accessible phonemic resource, functioning as an echo or reflection of a sound that persists within the community in specific forms and performance contexts.

KEYWORDS: pronunciation; language variation; trills; *libertimendua*.

LABURPENA: Artikulu honetan, Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den dardarkarien aldakortasunari erreparatu diogu. Dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatzeko ari da eta ikusiko dugu ordezkatzeko honezkero guztiz gauzatua den edo ez. Aldakortasuna ez dela berria erakusten duten lekukotasunak aipatzearekin bat, eskura ditugun erreferentzia eta baliabideekin egungo egoera islatu nahi izan dugu.

2024ko Hazparneko (Lapurdi) libertimenduko (16-30 urte arteko) zirtzilen jardunek osatutako corpusean Hazparneko hiztunek dardarkariak ubular edo hobikari ahoskatzen dituzten ikertu dugu. Emaizteak erakutsi dute Hazparneko gazteen artean dardarkari ubularra orokorra izanik ere, libertimendu emanaldiko zenbait egoera eta pertsonaia antzezteko hobikaria erabiltzen dutela. Beraz, ezin uka daiteke Hazparneko hiztun gazteek dardarkari hobikaria hautemateaz gain, nahita ahoska dezaketela. Nahiz eta egunerokoan eurek ez erabili, berariaz ebaki dezaketen hotsa izaten jarraitzen du, komunitatean neurri eta modu batean presente dagoen hotsaren oihartzun edo ispilu gisa.

HITZ GAKOAK: ahoskera; hizkuntza aldakortasuna; dardarkariak; libertimendua.

1. Sarrera

Hots aldakortasuna edozein hizkuntza biziren fonologian gertatzen den fenomeno izanik (Kruszewski 1978), euskarazko hots sisteman ere hots aldaketak gertatzen ari direla erakusten duten datuak eta azterketak ditugu; besteak beste, hor daude Hualde (2003), Oñederra eta beste (2014), Ensunza (2015) eta Urreta (2025) lanak.

Artikulu honetan, euskarazko dardarkariak ditugu aztergai; hain zuzen ere, Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den hots aldaketa bati erreparatuko diogu. Dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatzeko ari da eta ikusiko dugu ordezkatzeko honezkero guztiz gauzatua den edo ez. Oro har, Iparraldean dardarkariak duten egoera azalduko dugun arren, bereziki, Hazparneko (Lapurdi) hizkerari erreparatuko diogu, azterketarako erabiliko dugun corpusa Hazparneko libertimenduan oinarritzen baita. Hots aldaketek, batez ere, belaunaldi gazteen artean izan ohi dute indarra; lehengo formak irautekotan, adineko hiztunen artean irauten du (Labov 1999 [1994]: 47). Gure lanean 2024ko Hazparneko libertimenduan parte hartu duten 16-30 urte

bitarteko gazteen jardunak aztertu ditugu, dardarkarien ahoskera nolakoa den ikusteko asmoz.² Libertimenduaren antzerki-parodia izaerak pertsonaia desberdinak gorpuzteko eta pertsonaia desberdinei ahotsa jartzeko egokiera eskaintzen duenez, antzezle horien jardunei jarri diegu arreta azterketa egiteko. Hain zuzen ere, dardarkari ubularrak hobikaria guztiz ordezkatu duen edo oraindik gazteongan dardarkari hobikariak lekurik ba ote duen jakin nahi izan dugu. Dardarkari ubular eta hobikariaren arteko aldakortasun fono-estilistiko eta sozio-fonologikoa deskribatzea da helburua, horrek hiztunen fonema sistemaren inguruko informazioa eman baitezake. Izan ere, dardarkari ubularrak hobikaria erabat ordezkatu badu, dardarkari hobikaria desagertu dela adierazi nahiko luke. Corpuseko datuek erakutsi digute Hazparneko Libertimenduko gazteen ahoskeran dardarkari ubularra nagusitzen den arren, zenbait egoeratan dardarkari hobikaria ekoizten dutela. Gertaera horren azalpena ematen saiatuko gara artikuluan.

Hasteko, 2. atalean, euskarazko hots dardarkarien deskribapena egingo da, antzina eta egun, dardarkarien sailean dauden hotsak aurkeztuta. Bereziki, Iparraldeko euskaran dardarkarietan gertatzen ari den hots ordezkatzeari aztertuko da; itxura guztien arabera euskara-frantsesa elebitasunaren eraginez, dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatzeko ari dela azalduko da eta ordezkatzeari bilakaeraren berri emango da. Ondoren, 3. atalean, lan honetan oinarri izan den corpusa eta metodologia aurkeztuko dira; Hazparneko libertimendua hartu dela oinarritzat azalduko da. Jarraian, 4. atalean, hiztun gazteek libertimenduko emanaldian dardarkariak nola ahoskatzen dituzten aztertuko da, belaunaldi berrien artean hots ordezkatzeari zertan den ezagutzeko. Azkenik, lanarekin ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko dira.

2. Hots dardarkariak euskal fonologian

Euskararen sistema fonologikoz ondokoa irakur daiteke dardarkariei buruz euskal fonetika-fonologiaren lanik nagusienetakoa den Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* (1990 [1961]: 327):

Por lo que hace a las vibrantes, tanto los textos como otros testimonios nos garantizan que todos los dialectos vascos han conocido en tiempos modernos una oposición *r/R* entre dos fonemas de articulación apical. Todavía hoy se distinguen en la mayor parte de la zona de habla vasca como simple y múltiple, conforme a la terminología de Navarro Tomás, por el número de vibraciones de la punta de la lengua. El fonema */r/* tiene además una variante fricativa, sin vibración. (Mitxelena 1990 [1961]: 327)

² 2024ko martxoaren 9an izan zen Hazparneko libertimendua.

Horrela, bada, azken hamarkadak arte bi dardarkari bereizi izan dira euskararen eremu osoko sistema fonologikoan, /r/ ttak-a³ eta /r/ dardarkaria,⁴ biak ala biak hobikariak. Hots dardarkarien eta ttakaren arteko ezberdintasun nagusia dardara kopuruan datza; dardarkarietan organo artikulatzaileek irekitze eta ixte azkar eta errepikatuak egiten dituzte, airea kolpeka botaz:

One of the soft moveable parts of the vocal tract is placed close enough to another surface, so that when a current of air of the right strength passes through the aperture created by this configuration, a repeating pattern of closing and opening of the flow channel occurs. (Ladefoged & Maddieson 1996: 217)

Ttakaren kasuan, berriz, ez da organo artikulatzaileen ukitu errepikaturik gertatzen, bakar bat baino ez: “Another class of rhotic sounds are those which invariably have a single short closure” (Ladefoged & Maddieson 1996: 230).

Azaldu ditugun bi hots horiek (dardarkaria eta ttaka), oro har, bokalarlean erakusten dute aurkakotasuna euskaraz: *e[r]e* vs *e[r]e*, *o[r]o* vs *o[r]o*. Gainerako inguruneetan dardarkaria ahoskatzen da; kontsonante aurreko silaba amaierako posizioan (*a[r]to*, *o[r]du*), kontsonante ondorengo posizioan (*t[r]en*, *b[r]oma*) eta hitz amaieran (*u[r]*, *ze[r]*).

Euskarazko dardarkarien erabilera orokorra aipatu duguna izan den arren, Iparraldean aldakortasun zantzuak nabari dira;⁵ antzina, eta ez hain antzina, euskararen eremu osoan nagusi zen fonologia sisteman ordezkatzeari antzeman daiteke dardarkarien sailean.

3. Hots ordezkatzeari Ipar Euskal Herrian: dardarkari ubularra

Atal honetan, Iparraldean dardarkarien sailean gertatzen ari den hots ordezkatzeari bat aztertuko da; hain zuzen ere, dardarkari ubularra dardarkari hobikaria ordezkatzeari dela azalduko da. Hots ordezkatzeari izan duen bilakaeraren berri ematearekin batera, lekukotasunak bilduta, egun, Ipar Euskal Herrian duen egoera ikertuko da, elebitasunaren eraginari arreta jarrita, dardarkari ubularrak euskal hiztunen hots sisteman duen lekua neurtu ahal izateko.

3.1. Hots ordezkatzeariaren bilakaera

Munduko hizkuntzen artean dardarkari hobikaria da nagusi; hizkuntza gehienek (% 75ek) dardarkari bat baino ez dute eta hori, nagusiki, hobikaria izaten da (Ladefoged & Maddieson 1996: 217). Maddiesonek (1984: 81) adierazi zuen 316 hizkuntzen artean, lauk bakarrik zutela dardarkari ubularra: bata hizkuntzak, frantsesak, alemanak eta ekialdeko armenierak (azken

³ Ingelesez *tap* edo *flap* izenez ezagutua.

⁴ Ingelesez *trill* izenez ezagutua.

⁵ Mitxelenak (1990 [1961]: 328) aipatzen duen Zuberoako bokalarleko ttakaren galera ez dugu oraingoan aintzat hartuko.

honek hurbilkari ubularra du). Urte batzuk geroago, 2013an, autore berak hizkuntza gehiago aztertu zituen (567, zehazki) eta 97 hizkuntzatan topatu zuen dardarkari ubularra (Maddieson 2013). Euskararen eremuan hitz egiten diren beste hizkuntzei dagokienez, gaztelaniak ttak hobikaria eta dardarkari hobikaria ditu; frantsesak, aldiz, dardarkari ubularra baino ez du. Zenbait hizkuntzatan dardarkari hobikariak ubularrek ordezkatu bide dituzte; esate baterako, Europa mendebaldeko hizkuntzetan fenomeno ezaguna da dardarkari hobikariak ubular bihurtzea, frantsesean kasu (Durand 2009: 143-144; Etchebest 2017: 45).⁶

Antzina frantsesez gertatu zen hots ordezkatzeari gertatu da Iparraldeko euskararen ere; eremu zabal batean, dardarkari ubularrak dardarkari hobikaria ordezkatu du edo ordezkatzaren ari da. Ordezkatzeari ez da hasi berria; bestea beste, Mitxelenak jada zenbait urte antzeman zuen hots aldaketa:

La oposición ha desaparecido o ha cambiado de carácter en tiempos recientes en poblaciones de habla labortana y bajo-navarra por la introducción del *grasseyement* francés. Donde esto sucede, las dos pronunciaciones apicales han podido confundirse en una única articulación interior o bien /r/ sigue siendo apical y /R/ se ha hecho posterior. (Mitxelena 1990 [1961]: 328)

Mitxelenaren arabera (1990 [1961]: 328), frantsesezko *grasseyement* delakoa, dardarkariaren ubulartzea alegia, gertatu da garai berrienetan Iparraldeko euskararen; hau da, ttak-ak hobikari izaten jarraitu du eta dardarkaria ubular izatera igaro da, frantsesean bezala. Gaur egun, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan nagusitasuna du dardarkari ubularrak (Zuazo 1998: 211; Oñederra eta beste 2014: 88) eta lurraldeen artean, dirudienez, Lapurdiko euskara da ubularrak indar handiena duen eremua. Aldiz, Zuberoako euskara da dardarkari hobikariari gehien eutsi diona; nahiz eta hor ere ahoskera ubularra izan, hiztun helduen artean nagusitasuna ez da erabatekoa.

Berriagoak diren lanetan ere lekukotua da aztergai dugun hots ordezkatzeari. Bestea beste, Hualdek (2003: 32) adierazten du Lapurdiko eta Behe Nafarroako hiztun gehienek dardarkaria ubular ekoizten dutela. Epeldek (2004: 58), Larresoroko (Lapurdi) hizkeraren azterketa dialektologikoa egitean, aipatzen du /r/ ttak hobikaria eta /R/ dardarkari ubularra bakarrik topatu dituela. Artzelusek (2021: 134) Garazi ibarreko (Behe Nafarroa) hizkeretan ere dardarkari ubularra dela nagusi adierazten du. Urretak (2025) Baigorriko (Behe Nafarroa) ahoskera aztertzean dardarkari guztiak ubular ahoskatzen dituztela hiztunek jasotzen du. Zuberoako dardarkariaren bariazio sozio-fonetikoaren azterketa egin duen Etchebest-ek (2017: 83) dio

⁶ Frantsesean beste aldaketa bat ere etorri zen dardarkaria ubular bihurtu ondoren, XVIII-XIX. mendeetan [ʁ] igurzari ubularra dardarkari ubularra ordezkatzaren hasi baitzen hainbat eremutan (Etchebest 2017: 48).

zubereran ere dardarkarien sailean ubularrak nagusitasuna duela. Gaminde eta bestek (2017: 60), azterketa akustikoa eginda, ondorioztatzen dute Hegoaldean dardarkari hobikaria ahoskatzen dela eta Iparraldean, berriz, ubularra; joera orokorra dela diote.

Aztergai dugun hots ordezkatzeari ahoskune aldaketa gertatzen da, hau da, airearen estutze-irekitzea (dardara sortzen duena) hobian egin beharrean, ubulan egiten da: *he[R]i, u[R]te, t[R]en, ze[R]*.

Aldaketa berriago bat ere gertatzen ari delako zantzuak topa daitezke Iparraldeko hiztunen artean; hain zuzen ere, dardarkari ubularrak ttak hobikaria ordezkatzeari dueneko ahoskerak entzun daitezke tarteka. Aurreko atalean adierazi dugu bokalarartean bereizten direla, oro har, ttaka eta dardarkaria. Ipar Euskal Herriko hiztunen artean, ordea, euskararen gainerako eremuetan ttaka ahoskatuko litzatekeenetan, zenbaitetan, dardarkari ubularra ebakitzen da. Batetik, frantseseko mailegu batzuetako ahoskera dugu; hau da, azken garaietara arte bokalarartean ttakaren bidez ahoskatu diren zenbait mailegutik dardarkari ubularra ahoskatzen dute hiztunek, frantseseko ahoskera ubularra mantenduta; Baigorriko hiztunen ahoskerak dira honakoak: *ga[R]ajeko, pape[R]ez, tu[R]istak, ka[R]abineroak* (Urreta 2025: 307). Bestetik, euskal hitz batzuetan ere, bokalararteko kontsonantea ez da, euskaraz oro har bezala, ttak hobikari ebakitzen, dardarkari ubular baizik. *Oroitu* eta *buraso* hitzetako dardarkariak, adibidez, ubular ahoskatu ohi dituzte Iparraldeko hiztunek; nahiko orokortua dago hitz horiek ubularrarekin ahoskatzea: *o[R]oitzen, o[R]oitzapen, bu[R]asoen* (Urreta 2025: 308). Zuazok (2021: 30) ere bi hitz horiek dardarkari ubularrarekin bildu ditu Baigorri eta Orreaga ibarretako euskararen, baita Epeldek (2004: 56) Larresoroko euskararen ere.⁷ Gauzak honela, pentsa liteke, ziurrenik, hiztunek forma horiek dardarkari ubularrarekin dituztela lexikalizatuta. *Oroitu* eta *buraso* hitzez gain, Urretak (2025) Baigorriko hiztunen artean beste bi kasu bildu ditu, non bi euskal hitzetako bokalararteko kontsonantea ubular ahoskatu duten bi hiztunek: *a[R]azo, ga[R]apen*. Azken kasu horietan, ubularraren ahoskera ez da *oroitu* eta *buraso* hitzetakoa bezain orokortua. Esan nahi da ikerketan parte hartu duten gainerako hiztunek ez dituztela, oro har, dardarkari ubularrarekin ahoskatzen, ttak hobikariarekin baizik; 8 hiztunetatik bakarrak ebaki du *ga[R]apen*, gainerako guztiek *ga[r]apen* ahoskatu baitute, eta *a[R]azo* ere hiztun batek baino ez du ahoskatu; gainerakoek *a[r]azo* ebaki dute. Ondorioz, baliteke dardarkari ubularra, dardarkari hobikaria ordezkatzeari aritzeaz gain, ttak hobikaria ere ordezkatzeari hasi izana; hau da, bokalarartean ttakaren eta dardarkariaren arteko neutralizazioa ere bide egiten hasi izana. Azken

⁷ Bi hitz horiekin batera honakoak jaso ditu Zuazok (2021: 30): *ko[R]opilo* ‘korapilo’, *muku[R]u*, *o[R]atu* ‘oratu, erabat zikindu’.

kasu honetan, ordezkatzeari ez litzateke, dardarkari hobikariaren ordezkatzeari bezala, ahoskuneari lotua bakarrik (hobikari izatetik ubular izatera igarotzea), artikulazio moduan ere eragingo bailuke aldaketak (ttaka izatetik dardarkari izatera pasatzea). Artikulu honetan, hots ordezkatzeari hori aztertuko ez dugun arren, aurrera begira, sakonago aztertzeke ikerlerro interesgarria litzateke.⁸

3.2. Elebitasuna eta euskararen ahoskera

Goiko lerroetan aurreratu dugu Iparraldeko euskaran dardarkari ubularra hobikaria ordezkatzeari ari dela, frantsesez moduan. Gogoan izan behar da euskara gaztelaniaren eta frantsesaren menpe dagoen hizkuntza gutxitua dela eta honezkero ez dagoela euskal hiztun elebakarrik (aipatu hizkuntzak oraindik bereganatu ez dituzten haurrak salbu). Euskal Herriko hiru lurraldeetan (EAE, Nafarroa eta Iparraldeko Euskal Herria) egin zen 1991ko lehen Inkesta Soziolinguistikoa euskaraz baino ez zekiten hiztun multzoa aipatzen zuen; biztanleriaren % 1 (23.500 lagun, gutxi gorabehera). Hala ere, % 76 erdaraz pixka bat hitz egiteko gai ziren. 1996ko bigarren Inkesta Soziolinguistikoa arabera, euskaldun elebakarrak erdira jaitsi ziren, biztanleen % 0,5 —12.400 lagun, gutxi gorabehera— (Coyos 2010: 142). Ordutik aurrerako inkestek, ordea, ez dute euskaldun elebakarrik aipatzen, guztiak elebidunak edo eleaniztunak dira; gutxienez, euskara-gaztelania elebidunak Hegoaldean eta euskara-frantsesa Iparraldean. Azken datuen berri izateko, ikus euskararen eremu osoko VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza eta beste 2016).

Hiztunen elebitasun egoera hau fonologiaren arloa ekarrita, ondorioztatu daiteke ez dagoela euskal hiztunik gaztelaren edo frantsesaren eredu fonologikorik ez duenik. Horrek erdaren ahoskera (hotsak, besteak beste) nagusitzearen arriskua lekarke. Are gehiago kontuan izanda hizkuntza baten atalen artean (morfologia, lexikoa, etab.) ahoskera litzatekeela erdaren sarleku babesgabeena (Oñederra 2019: 942). Dagoeneko erdaren kolorea aski zabaldua dago zenbait euskal hiztunen ahoskeran; besteak beste, prosodiari dagokionez, adierazgarria da erdal ereduaren indarra, prosodia berri bat nagusitzerainokoa kasu batzuetan (ikus Oñederra 1998). Noski,

⁸ Aipatzekoa da, halaber, Etchebest-ek (2017) bere doktorego-tesian, Zuberoako dardarkariaren sailean azaldu ditugun bi hots aldaketa horiez gain (dardarkari ubularrak dardarkari eta ttak hobikariak ordezkatzeari), dardarkariaren beste ahoskera batzuk ere bildu dituela. Aipatuenera artean, hori gertatu [ɣ] igurzkari ubularra, frantsesean gertatu bezala (ikus 6. oin-oharra), Iparraldeko euskaretan ere dardarkari ubularraren igurzkariartzea gertatzen ari delako zantzuak eta azterketak baitaude. Guztira dardarkariaren sailean 9 alofono jaso ditu azterketa akustikoa eginda. Kontuan hartzeko datua da, etorkizunera begira, Iparraldeko dardarkariaren ahoskera aztertzerakoan; gure artikuluan ez gara gauzatze ezberdin horien azterketan sartuko, ikerlanaren helburu eta mugak gaitutuko litzatekeelako.

erdaren eredu fonologikoen nagusitasuna hiztunaren biografia linguistikoaren zenbait eragileren arabera izango da.

Egoera honetan erdal hotsak ere ari dira sartzen euskarara, hiztun askoren fonema inbentarioan lekua dute jada. Esaterako, gaztelaniako /θ/ igurzkari hortzartekoak indarra du Hegoaldeko euskararen. Azken hamarkadak arte, euskaraz txistukariak hobikari ahoskatu dira, bai igurzkariak, bai afrikatuak; honela, aurkakotasun gehien dituzten euskaretan honako sei fonemak bereizi izan dira, guztiak hobikariak (eta sabaiaurrekoak): /s/ igurzkari hobikari apikaria, /ʃ/ igurzkari hobikari lepokaria, /f/ igurzkari sabaiaurrekoa, /tʃ/ afrikatu hobikari apikaria, /ts/ afrikatu hobikari lepokaria eta /tʃ/ afrikatu sabaiaurrekoa.⁹ Azkenaldian, ordea, gaztelaniako igurzkari hortzartekoa [θ] ere entzuten da Hegoaldeko hiztunen euskarazko jardunetan; bereziki, maileguetan eta izen berezietan erabiltzen da: *pro[θ]esu*, *so[θ]ial*, *Odrio[θ]ola*, *I[θ]askun*, *[θ]estoa* (Oñederra eta beste 2014: 80). Oñederra eta beste (2014: 79) diote beste hizkuntza bateko fonemak (gaztelaniakoak eta frantsesekoak, bereziki, euskararen kasuan) nahiz eta maileguetan eta forma berezietan bakarrik agertu, hots horiek hiztunen fonema inbentarioan daudela. Hiztunek hautematen, memorian gordetzen eta berariaz ahoskatzen dituzten neurrian, euren baliabide linguistiko dira; izan ere, fonema, Donegan eta Stamperen (2009: 13) arabera, asmo, oharren eta memoria unitatea da, berariaz ahoska, berariaz hauteman eta oroitu daitekeen hotsa, alegia. Horrela, bada, /θ/ hortzartekoak honezkero lekua luke Hegoaldeko zenbait euskal hiztunen fonema inbentarioan (Oñederra eta beste 2015: 516).

Hegoaldean, gaztelaniaren eraginez, hortzartekoa sartu den bezala, Iparraldean frantsesaren fonema inbentarioaren parte den /r/ dardarkari ubularra sartu da, 2. ataleko autoreen aipamenei begiratuta, ubularraren hots ordezkatzeko lehenagokoa da eta indar handiagoa du, hortzartekoaren kasuarekin alderatuta. Iparraldeko euskal hiztunek, gutxienez, euskara eta frantsesa bereganatu dituztenez, euskarazko hots sistemaz gain, frantsesarena ere menderatzen dute eta, hortaz, frantseseko hots ubularra euren hizketara sartu bide da. Are gehiago, esan liteke dardarkari ubularrak lekua duela Iparraldeko euskal hiztunen fonema inbentarioan (Oñederra eta beste 2014, 2015); izan ere, ahoska eta hautematen duten neurrian, euren fonema inbentarioaren parte litzateke. Gertakari honek Iparraldeko hiztun askorengan /r/ hobikaria desagertzeko bidean jartzen du, ahoskera ubularra hobikaria ordezkatzeko ari delako.

⁹ Mendebaldeko euskal hizkeretan ez da, oro har, txistukari apikariaren eta lepokariaren arteko bereizketarik egiten, apikariaren aldeko neutralizazioa gertatu da igurzkariaren sailean ([s]/*aldu*, [ʃ]/*ubi*) eta lepokariaren aldekoa afrikatuaren sailean (*a[tʃ]amar*, *hu[tʃ]a*).

Hegoaldeko eta Iparraldeko ahoskeren arteko aldeak aski handiak dira, beharbada, geroz eta handiagoak (ikus, besteren artean, Oñederra eta beste 2015: 515), besteak beste, goiko lerroetan azaldu moduan, alde bakoitzean elebitasun egoera ezberdina dagoelako eta alde bakoitzeko erdarek eragin aski handia dutelako euskararen ahoskeran. Dardarkariaren ahoskera da, hain zuzen, Hegoaldeko eta Iparraldeko hizkeren arteko ahoskera ezberdintasun nabarmenenetakoa. 3.1. atalean ikusi dugu hainbat autoreren ekarpenek erakusten dutela joera orokorra dela Hegoaldean dardarkari hobikaria ahoskatzea eta Iparraldean ubularra nagusitzea. Hitzunek eurek ere joera orokor horren berri badute; izan ere, Hegoaldekoentzat dardarkari ubularra Iparraldeko euskararen ezaugarri da eta Iparraldekoentzat dardarkari hobikaria Hegoaldeko euskararen ezaugarri (Artzelus 2021: 135). Euskararen batasunerako izan dezakeen eragina gogoan, aztertzea merezi duen fenomeno litzateke, beraz.

3.3. Hots ordezkatzearen egungo egoera

Hots aldaketak ez dira hizkuntza edo hizkera batean egun batetik bestera gertatzen (Donegan & Nathan 2015: 440). Aldaketa gauzatzeko bidean, ohikoa izaten da hiztun-talde ezberdinek hots aldaketaren egoera ezberdinak erakustea; besteak beste, maiz adineko hiztunen jardunetan mantentzen dira lehengo formak (ahoskerak) eta gazteen hizketan forma berriak nagusitzen dira. Hala gertatzen da, hein batean, dardarkari ubularraren ordezkatzearen kasuan; egun, Iparraldeko eremu osoan ubularra aski zabalduta eta orokortua izan arren, bereziki, nagusitasuna du gazteen artean eta dardarkari hobikaria, mantentzekotan, adineko hiztunen artean mantentzen da.

Oñederra eta bestek (2014: 88-91) belaunaldi ezberdinen artean Iparraldeko euskararen dardarkari ubularraren ordezkatzeari zertan den aztertu zuten, NORANTZ datu-baseko ahoskeretan oinarrituta.¹⁰ Ondorioztatu zuten, batez ere, adineko hiztunek erabiltzen zutela hobikaria. Hain zuzen ere, honako emaitzak jaso zituzten: 15 hiztun adinekoen artean % 53,3k ebaki zuten [r], 12 hiztun helduen artean % 25ek eta 32 hiztun gazteen artean % 12,5ek baino ez. Aldiz, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago zerabilten ubularra: gazteen % 87,5ek ahoskatu zuten [R], helduen % 75ek eta adinekoen % 46,6k bakarrik.

Epeldek (2004) ere, Larresoroko (Lapurdi) euskara aztertzean, ondorioztatu zuen, hiztunen artean, oro har, ubularra izan arren nagusi, adineko hiztun batzuek hobikaria ahoskatzen zutela.

¹⁰ NORANTZ Ipar Euskal Herriko egungo lekukotasun mintzatuekin Baionako IKER (UMR5478) zentroan egin zen ahozko corpusa da. Proiektuaren izen ofiziala honakoa da: *Projet Norantz: Contact de langues et variation linguistique: création d'un observatoire des nouveaux parlers basques*. 2008ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra arte iraun zuen proiektuak eta helbide honetan aurki daiteke: www.norantz.org (2025/05/02).

Hain zuzen ere, adierazten du dardarkari ubularra dela zabalduena Lapurdiko ekialde osoan, baina Kanboko, Gerezieta (Lekorne) eta Ezpeletako berriemaile batzuek ez zutela ubularra ahoskatzen, hobikaria baizik; guztiak adin handikoak zirela nabarmentzen du. Frantsesez ari zirenean ere ez omen zuten ubularra ebakitzen (Epelde 2004: 284). Datu honek erakutsiko luke hiztun hauen fonema inbentarioan dardarkari hobikaria zegoela soilik.

Behe Nafarroara igarota, Caminok (2016: 194), Amikuze eskualdeko euskara aztertzean, ikusi zuen adineko hiztunen artean, dardarkari ubularraren adibideak entzun zitezkeen arren, gehienek hobikaria ahoskatzen zutela. Bide beretik, Egurtzegi eta Carignan-ek (2020) Amikuzeko 80-85 urteko hiztunek ahoskatutako dardarkariak aztertu zituzten akustikoki eta ondorioztatu zuten, nahiz eta batzuek ubularra ebaki tarteka, hobikaria ere ahoskatzen zutela. Artzelusek (2021: 135) Garazi ibarreko euskaran dardarkari ubularra dela nagusi bildu zuen; bereziki, gazteen artean gailentzen da ubularra eta hobikaria adineko hiztunen artean entzuten da. Adibidez, Hergaraiko eta Gamarteko adineko bi emakumek beti hobikaria darabiltela aipatzen du. Urretak (2025: 307) Baigorri dardarkari ubularra bakarrik jaso du 20-60 urte bitarteko hiztunen artean, baina hiztun zaharragoen artean hobikaria ere bildu du; esaterako, azaltzen du 74 eta 76 urte zituzten bi gizon eta adin bertsuko emakume baten arteko solasaldian guztiek dardarkari hobikaria ahoskatzen zutela. Gainera, lan bereko Baigorriko hiztun gazteek aipatzen dute, euren dardarkari hobikaria ez ebaki arren, euren inguruan entzutea ez zaiela arrotz egiten, batez ere adineko jendeak erabiltzen baitu. Hiztun gazte bat oroitzen da bere amonak *e[r]an* ahoskatzen zuela beti, inoiz ez *e[R]an*, baina jakitun da, egun, bereziki gazteen artean, dardarkari hobikaria galdu egin dela Iparraldean eta ubularrak hartu duela indarra (Urreta 2025: 309).

Zuberoako eremuan ere dardarkarien erabilera antzekoa antzematen da adin-talde ezberdinetan. Adineko hiztunen artean dardarkari hobikaria mantentzen da eta gazteen artean ubularra nagusitzen da (Etchebest 2017: 308-309).

Deigarria da bi dardarkariak (ubularra eta hobikaria) erabiltzen dituzten hiztunak ez direla asko; hau da, hiztun beraren hizketan bi dardarkariak entzutea ez da ohikoa (Artzelus 2021: 135). Kasu bakan batzuk baino ez dira jasotzen dardarkariak aztertu dituzten lanetan; esate baterako, Caminok (2016: 665) Ostankoako (Behe Nafarroa) 90 urteko hiztun baten kasua dakar, non jardun berean ubularra eta hobikaria, biak, ahoskatzen dituen aldizka, nahiz eta ubularra sarriago darabilen: *a[r]giaikin*, *pa[r]titzen*, *a[r]unt* eta *egu[R]a*, *sa[R]tzeko*, *be[R]din*. Artzelusek (2021: 136) ere jaso ditu adibide batzuk; Ezterenzubiko (Behe Nafarroa) adineko emakume batek *kong[r]egazione*, *be[r]din* eta *kong[R]egazione*, *be[R]din* ebaki ditu, eta Irulegi-Anhauzeko (Behe Nafarroa) adineko gizon batek *e[r]ain duzu* eta *e[R]ain duzu* ahoskatu

ditu. Dena den, aipatu ditugun kasuak gorabehera, oro har, hiztunek ubularraren edo hobikariaren alde egiten dute; hiztun berak ez ditu biak erabiltzen. Honen ondoren, azpimarragarria iruditzen zaigu Iparraldean hazi eta hezi diren eta Hegoaldeko gurasoak dituzten zenbait hiztunen kasua, horietarik zenbait dardarkari hobikaria zein ubularra erabiltzeko gai direlako, baina ziurrenik egokieraren eta solaskidearen arabera bata edo bestea erabiltzen dutelako.¹¹

Artikulu honetarako, bereziki, Hazparneko (Lapurdi) kasua interesatzen zaigu, herri horretako libertimendua baita aztergai (4. atala); zehazki, libertimenduan hiztun gazteek dardarkariak nola ahoskatzen dituzten aztertuko dugu. Hori horrela, Hazparneko euskaran dardarkariaren egoera zein den ikertu dugu aurrez. Artikuluan zehar aipatu ditugun autoreen lanek erakutsi bezala, dardarkari ubularraren nagusitasuna, oro har, Ipar Euskal Herri osoko euskarara hedatua da; hortaz, Hazparnen ere dardarkari ubularrak hobikaria ordezkaturik luke edo ordezkatzeko ariko litzateke. Hala adierazten du Epeldek (2004: 284), Larresoroko hizkera eta Hazparnekoa konparatzen dituen; dardarkariaren sailean ez dago ezberdintasunik bi hizkeren artean, bietan dardarkari ubularra da nagusi.

Libertimenduko datuez haratago, eskuartearen dugun ikerketa osatzeko, Mintzoak egitasmoan bildu diren Hazparneko hiztunen grabazioak ere aztertu ditugu eta ondorioztatu dugu, oro har, Iparraldeko gainerako hizkeretan lekukotzen den egoera bera dela Hazparnen.¹² 24 hiztunen grabazioak aztertu ditugu, ikusteko ea hiztunek dardarkari ubularra edo hobikaria ahoskatzen duten, eta grabazio guztietatik bederatzi hiztunek baino ez dute erabiltzen hobikaria; gainerako guztiek ubularra ebakitzen dute. Hain zuzen ere, dardarkari hobikaria ahoskatzen duten hiztunak adinekoak dira (80 urte ingurukoak) eta gazteagoak direnek ubularra darabilte beti. Aipatzekoa da, halaber, adinekoen artean ere askotan ubularra dela nagusi. Horrekin batera, Hazparneko libertimenduak aztertzeke garaian, libertimenduko parte hartzaileekin (hiztun gazteak) elkarrizketa erdi-gidatuak ere egin ditugu eta, hurrengo atalean xeheago azalduko den bezala, horietan beti dardarkari ubularra ebaki dute hiztunek.

Gauzak horrela, sortzen zaigun galdera da ea Hazparneko euskaran dardarkari ubularrak dardarkari hobikaria guztiz ordezkatu duen, bereziki belaunaldi berrietan; alegia, hots ordezkatzeko erabat gauzatu ote den eta, hortaz, hobikaria hiztunen fonema inbentariotik

¹¹ Azterketa gehiago behar duen gaia da aipatutakoa.

¹² *Mintzoak* Ipar Euskal Herrian ahozko memoria kolektiboaren inguruan egindako ikus-entzunezko grabaketak ezagutarazi nahi dituen egitasmoa da. Euskal kultur erakundearen (EKE) ekimen bat da eta www.mintzoak.eus webgunean dago eskuragarri (2025/05/02).

desagertu ote den. Horretarako, Hazparneko libertimenduan hitzun gazteek dardarkariak nola ahoskatzen dituzten aztertuko dugu. Atal honetan esandakoei jarraituz, pentsatzekoa da ubularra izango dela nagusiki gazteok ahoskatuko duten dardarkaria eta, dardarkari hobikaria erabiltzen badute, noiz, zein testuingurutan edo zein funtzioarekin erabiltzen duten jakin ahal izango dugu.

4. Hazparneko libertimendua

Libertimendua ihauteri garaiko errepresentazioa da, dantza, bertsoak eta antzerkia tartekatuz osatzen dena. Herri izaera du, esan nahi baita herriko jendeak herriarentzat (edo ondoko herriarentzat) besta egiteko sortua dela, horregatik herriko gazte taldeek osatua da; adibidez, herriko dantza taldeak (baldin badago, bestela ondoko herriko dantzariak osatua) eta herriko gazte antzerkilariek hartzen dute parte. Ihauteria ospatzeko kalean egiten diren antzezpenetan kritika da nagusi, herriko zein orokorragoa den egoera sozial, politiko, kultural, erlijioso eta orobat, eguneroko bizitzari kritika zorrotza agertzen da, betiere umorez.

Egun, Ipar Euskal Herriko zenbait herritan egiten da ospakizuna; badirudi galdua egon den tradizioa berreskuratzen ari dela. Azken urteetan indarra hartu duen ospakizun moldea da Behe Nafarroako eta Lapurdiko zenbait herritan; hala nola, Donibane Garazin zein Hazparnen eta Hegoaldeko herri batzuetan ere hasi dira libertimenduak ospatzen, esaterako, Añorgan (*dibertimendua* izenarekin) eta Iruñean (*Iruinkokoa* izenez ezaguna).

2024koa Hazparnen egiten den laugarren libertimendua da. Goizean goizik hasten da libertimendua kalerik kale, bertsolarien saio eta dantzarien dantzak herrian zehar eskainiz, herriko plazaren bat antzeztoki hartu arte. Antzerkia egiten duten pertsonaiei *zirtzilak* deitzen zaie (izen desberdinak izan ditzakete herri eta inguru ezberdinetan) eta esketx modukoak egiten dituzte dantzarien saio eta bertsolarien emanaldien artean. Gure azterketan libertimenduko zirtzilen hizketaldiei begiratuko diegu. Zirtzilaren izaeraz mintzo da Luku ondoko aipuan:

Zirtzila elea da eta desordena. Ele librea ekarri nahi du plazara, hitz anarkikoa, jatorrizko kaosaren erreinua berriz hedatu nahi du zibilizazio egonkorra antolatu lekuetan [...]. Eroa da edo bufoia eta jantzieta hauen herexak atzemanen ditugu. Baina artetan haurren edo ertzoen erranek ebidentziak ateratzen beittuzte, gure kontradikzioen parean ezartzen gaituzte. Funtzio hori antzerki satiriko guztiek daukate beren baitan. (Luku 2014: 231-232)

Azaldu bezala, zirtzilek, bertsolarien eta dantzarien saioen tartean, antzerki esketxak izenda ditzakegunak egiten dituzte eta antzezleek pertsonaia desberdinak errepresentatzen dituzte; saioan zehar antzezle berak pertsonaia bat baino gehiago gorpuzten ditu (izan daiteke ohoin zein errege, presidente zein laborari edo beste edozein pertsonaia). Hazparneko 2024ko

emanaldian 13 zirtzilek hartu zuten parte libertimenduan, guztiak hiztun gazteak, 16-30 urte bitartekoak.

4.1. Corpora eta metodologia

Aurreratu dugu jada zirtzilen saioak direla artikulu honetan aztertuko ditugunak. Azpimarratu behar da ikerlariok aurrez ez genituela ezagutzen zirtzilen esketxak; beraz, corpora egunean bertan emanaldian sortutakoa da, ez da aurrez prestatua. Hamahiru zirtzilek gorpuztutako pertsonaia desberdinen ahoskerak osatu du gure corpora eta pertsonaia horien dardarkarien ahoskera da aztergai nagusia.

Zirtzilek lau agerraldi egin zituzten; lehenengoak 14:30 minutu irauten du, bigarrenak 19:30 minutu, hirugarrenak 15:40 eta laugarrenak 16:40; guztira 65:40 minutu. Agerraldietan gai desberdinak jorratzen dituzte; esaterako, lehenengo agerraldian Nafarroako Erresumara joan ondotik, Hazparneko herriko etxeak beste proiektu batzuk lehenesten dituelako, Hazparnen ostaturik ez egotea salatzen dute, edo Arberoako adineko pertsona bat joaten da eskolako umeengana urte amaierako besta antolatzen laguntzera. Bigarrenean, besteren artean, laborarien etxaldea zein arditegia saldu nahia salatzen da, garesti eta, batez ere, atzerriko erostunei saldu nahi zaielako, bertako gazteak aukerarik gabe utzita. Ondotik, lurren prezioa salatuz, manifestazioa egiten da. Telebistako programa ezagun baten parodia ere egiten dute laborariak amodioa aurkitzeko. Hirugarren agerraldian zirtzilek bertso saio bat antzezten dute, non Palestina-Israelen arteko gatazka, bideak oztopatzeagatik egindako epaiketa, libertimenduaren ikerketa eta, eurek asmatua den *Beskoitzoro* filma oinarri hartuta, ikastolek izandako debeku eta istiluak diren gai behinenak. Azken agerraldiko gai nagusia, berriz, joko olinpikoak dira; jokoak Hazparnen egiteko proposamena antzezten dute, proposatuko lituzketen joko berriak aurkeztuta (adibidez, talo jaurtiketa) eta zein baldintza bete beharko liratekeen agerian jarrita (beltz immigranteak esplotatu, etxegabeak kanporatu, eta abar); azkenik, joko olinpikoei boikota egingo dietela esanez amaitzen da emanaldia.

Zirtzilen saioen grabazioa egiteko, emanaldi osoa grabatzeko ezarritako bi kamera finko erabili ditugu irudia eta audioa gordetzeko.¹³ Hotsen nolakotasuna erabakitzerakoan ikertzaileon oharmena izan da oinarria.¹⁴

Esan bezala, libertimenduek herriko izaera dute abiapuntu eta helburu, hazpandarrek hazpandarrentzat (eta bisitarientzat) sorturiko errepresentazioak baitira. Hori horrela, ondoko atalean, batez ere Hazparneko hizkeraren ezaugarri fonologikoak bilduko ditugu, 5. atalean dardarkarien aferari heltzeko.

4.2. Herri hizkeraren isla

Libertimenduak herri antzerki emanaldi diren heinean, antzezpenetan, oro har, herriko hizkeraren ezaugarriak erabiliko dituztela aurreikus daiteke. Hazparne Lapurdiko ekialdean kokatuta dagoen herria izanik, Zuazoren (2008: 157) sailkapen dialektologikoan Hazparneko hizkera nafar lapurtarraren barnean kokatzen da, sartaldeko eremuan, hain zuzen ere.¹⁵ Zuazoren (2008: 165) esanetan, “euskalki osoko bereizgarri gutxi dago”. Horrek ez du esan nahi, ordea, bereizgarri orokorrik ez duenik; ondotik, horietako zenbait aipatuko ditugu. Herriko hizkeraren ezaugarriak hainbat alderdi linguistikotatik azter daitezkeen arren, gure azterketa fonologiaren abiapuntutik egingo dugu, esan nahi baita ahoskeraren eremura mugatuko garela, batez ere.

Hazparneko euskarari buruzko atala osatzeko Epelderen 2004ko lana oinarri sendotzat hartzearekin bat, Zuazoren (2008) eta Caminoren (2022) lanak ere lagungarri egin zaizkigu, baita Duguinerena (2009) eta Padillarena (2009) ere. Epeldek, Larresoroko hizkeraren deskribapen osoa egiteaz batera, alboko herrietako hizkerekin alderatu ere egiten duenez,

¹³ Grabazioak egiteko erabilitako kamera profesionalak Sony HDR-CX110E eta Panasonic AG-AC160 dira. Azterketa fonologikoak egiteko egokiena pertsonaia bakoitzak bere mikroa izatea desiragarria bada ere, antzerki moldeagatik teknikoki erabat zail izan zen hala egitea. Alde batetik, kalean egiten den antzerkia denez, pertsonaiek ahotsaren modulazio oso bortitzak egiten dituzte, oihuka eta garrasika ere hitz eginez eta abestuz. Horrez gain, mugimenduan daude etengabe oinez, korrika, jauzika zein elkarren gainean salto eginez eta horrek, zailtasuna gehitzeaz gain, zirtzilentzat arriskua ere badauka, aparatu bat soinean eramanda min hartzeko aukera ere badagoelako. Horregatik, irudia eta audioa kalitate onez grabatzeko moduko kamera finkoak erabili ziren.

¹⁴ Azterketa akustikoa desiragarri balitz ere, kasu honetan ezin izan dugu egin, batez ere, grabazioen ezaugarriengatik. Bi ikertzaileen artean adostasuna egon da dardarkaria hobikari edo ubular gauzatzen den erabakitzeke, bi ahoskeren arteko desberdintasuna erlatiboki nabarmena delako, dardarkaria edo igurzkaria den hautematea baino nabarmenago, esaterako.

¹⁵ Hazparneko hizkerari buruz egin diren proposamen dialektologikoen inguruan interesa duenari Zuazoren lana (2008) gomendatzen zaio.

Larresoroko eta Hazparneko hizkeren arteko alderaketa egiten duen atal bat ematen du. Epelderren esanetan (2004: 278), “fonologiaren alorra da, ezbairik gabe, bi eremuen artean ezaugarri dibergente gehien eskaintzen duena”. Epelderren laneko atal hori erabiliko dugu Hazparneko hizkeraren ahoskerari dagozkien ezaugarri nagusi zenbait zerrendatzeko. Kontuan hartzekoa da, Epeldek (2004: 314) baieztatzen duen moduan, Hazparneko ezaugarriak, kasu honetan fonologikoak, ez direla eksklusiboak edo hizkera horri dagozkionak soilik. Ondoren, horietako batzuk aurkeztuko ditugu eta libertimenduko adibideez jantziko ditugu.

- Euskarazko hizkera zenbaitetan ezaguna den arteko bokalez (/e/, /o/) amaitutako hitzetan beheko erdiko bokala ([a]) gehitzean, erdiko bokala igo egiten da; disimilazio bat gertatzen da. Adibidez, *etxea* > *etxia*, *otsoa* > *otsua*. Ekiadeko hizkeretan ohikoa denez, bokal bilkura goranzko diptongo bihurtzen da: *etx[ja]*, *ots[wa]*. Gure corpusean aurkitutako adibideak dira *batajatz[ja]* ‘bataiatzea’, *errap[ja]k* ‘errapeak’ eta *futbol[ja]n* ‘futbolean’.
- *u*-z amaitzen diren hitzei *-a* determinatzailea edo morfemaren bat eransterakoan, [ya] bokal bilkura ahoskatzen da; /u/-ren palatalizazioa gertatzen da. Hala ere, Epeldek (2004: 282) aitortzen du [y]-ren palataltasuna ez dela izango ziurrenik Zuberoan bezain palatalizatua: “esan behar da ez dela *ü* garbia hots hori, *u* eta *ü*-ren tarteko zerbait baizik” (2004: 283). Aurkezten dituen adibideen artean: *esküa*, *sagüa*. Duguinek (2009: 200) eta Padillak (2009: 188) ere jasotzen duten hots txandakatze honen inguruan Caminok (2022: 247) aipatzen duenez, “Egungo Ipar Euskal Herrian Hazparne hiria da bakarra -*u-a* hiatoa palatalizatzean -*üa* emaitza duena”; beraz, Hazparneko hizkeraren bereizgarritzat hartzen duela ondoriozta dezakegu. Palatalizazioarekin batera desbiribiltzea ere gertatzen da; hau da, aitzineko goiko bokalak biribiltasuna galtzen du. Libertimenduan aurkitutako adibidea da, esaterako, *izurrat[ya]* ‘izurratua’.
- /u/ atzeko bokal itxiari /e/ aitzineko arteko bokalak jarraitzen dionean, asimilazioz, arteko bokala itxi egin ohi dela irakur daiteke Epelderren lanean, /i/ bihurtuz. Ondoren, asimilazioz, bi bokalen arteko nolakotasuna berdintzen da itxitasunean, adibidez *züek* > *züik* > *ziik*. Aipatu lanean irakur daiteke *-ue-* bokal elkarketa dagoen guztietan gertatzen dela, adizkietan bereziki, adibidez *ní(i)n* ‘nuen’ (Epelde 2004: 280). Era honetakoak lirarteke gure corpusean aurkitutako *duziila* ‘duzuela’ eta *behar hiin* ‘behar huen’.
- Epelderren (2004: 281) arabera, sudurkari aurreko arteko atzeko bokala *o* > *u* ixtea joera nagusia da Hazparnen: *úntsa* ‘ontsa’, *undár* ‘hondar’, *papillúna* ‘papillona’ eta *untzi*

‘ontzi’. 2024ko libertimenduan aurkitutako adibideak dira, esaterako, *sobera [u]ntsa* ‘sobera ontsa’ eta *[u]ntsa zizte?* ‘ontsa zarete?’.¹⁶

- Adizkien bokalei begiratuz gero, aipagarria da Hazparnen NOR-NORK saileko adizkietan monoptongatzea gertatzen dela; esaterako, *nu* ‘nau’, *hu*, ‘hau’ eta *nute* ‘naute’. Gure corpuseko adibidea da *enuk hasiko* ‘ez nauk hasiko’.

Kontsonanteei begira jarrita, artikulua honetan aztergai ditugun dardarkariez gain, bestelako bilakabide fonologiko batzuk aipatzen ditu Epeldek (2004):

- Euskal eremu osoan ohikoa den bezala (Hualde & Beristain 2019), Hazparnen ere lagunarteko egoeretan bokalarteko /b, d, g, r/ kontsonanteak galdu egiten dira maiz; esaterako, *baakit* ‘badakit’, *elgarretaatu* ‘elgarretaratu’, *berrooi* ‘berrogei’ (Epelde 2004: 282-283). Gure corpuseko adibideak dira, esate baterako, *diau* ‘diagu’, *eztuk arrapostuik?* ‘ez duk arraposturik?’, *iziarri maite* ‘izugarri maite’ eta *geo* ‘gero’.
- Hasperenari buruz, Epeldek dio hasperena Lapurdiko ekialde osoan erabiltzen dela, batez ere hitz jakin batzuetan; esaterako, *hil*, *haat* ‘harat’ edo *hau-hoi-hua* ‘hau-hori-hura’ erakusleetan. Hasperenaren erabilera ez dela sistematikoa eta orokorra gehitzen du, baina pertsona nagusiek gehiagotan erabiltzen dutela ere esaten du eta badirela kasuak non pertsona batek hitz bera hasperenarekin eta hasperenik gabe ere ahoska dezakeen. Gure corpusean hasperenik, oro har, ez dela erabiltzen esan dezakegu.
- Eremu honetan <j> [j] sabaikari ahostun ebakitzen da euskal jatorriko hitzetan eta mailegu zaharretan ([j]abe ‘jabe’, [j]akin ‘jakin’); gure corpuseko adibideak dira [j]oko ‘joko’ eta [j]aun ‘jaun’. Horrekin batera, aipatzekoa da mailegu berriagoetako <j> [ʒ] sabaiaurreko ahoskatzen dela, frantsesez ohi den bezala; adibidez, [ʒ]urnála (fr. *journal*). Mailegu berrietan, *i* eta *e* bokalen aurretik doan <g> ere sabaiaurreko ahostun ahoskatzen da maiz (Epelde 2004: 284); esaterako, *xofá[ʒ]a* (fr. *chauffage*). Gure corpusean azken hitz honen ahoskera aurkitu dugu.
- Euskarazko beste eremuekin izan ditzakeen desberdintasunei begira, bai Hazparnen eta bai inguruetan, kontsonanteen asimilazio-bustidurarik ez da gertatzen; adibidez, *mi[n]a*, *i[t]urri*, *mi[l]a* (Epelde 2004: 284). Gure corpusean ere asimilazio bustidurarik ez da gertatu: *bikai[n]*, *ziki[n]a*, *langi[l]eak*, *i[l]eak*, *oi[l]oak*.
- Kontsonante txistukariei dagokienez, Epeldek dio (2004: 285), Hegoaldeko hizkeretan eta sarri Zuberoan, afrikatu sabaiaurreko ([tʃ]) ebakitzen diren zenbait hitzen hasierako

¹⁶ Galdetu beharko litzateke bilakabide biziak ote diren edo, inoiz biziak izandakoak izanik ere, forma hauek fosilduak edo lexikalizatuak geratu ote diren.

kontsonantea Hazparnen igurzkari sabaiaurreko ([f]) ahoskatzen dela; hala nola *xakúr*ra, *xorí*a eta *xapé*la. Gure corpuseko adibideak dira *ur*din eta *xur*iak.

Ezaugarri fonologikoetatik haratago, badira zenbait ezaugarri Hazparneko hizkeratik gaindi doazen arren, nafar lapurterari behintzat badagozkionak. Horietakoak dira, esate baterako, xuketaren erabilera (Zuazo 2008: 151) eta galdera egiteko *-a* partikula erabiltzea (Zuazo 2008: 152). Gure corpusean badira bietariko adibideak, xuketa erabiltzen baita, esaterako, *untsa xira?*, *polita duxu* eta *xu xira Jaione?* esaldietan. *-a* partikula bidez sortutako galderak ere aurki daitezke: *ez duzuia uste?* ‘ez duzu uste?’, *badakika?* ‘badakik?’ eta *eztea ostatu madarikatuik Hazparnen?* ‘ez da ostatu madarikaturik Hazparnen?’.

Atal honen hasieran adierazi dugun moduan, herritarrek herritarrentzat edo ingurukoentzat eginiko ekitaldia izanda, zentzuzkoa da herri hizkera islatu nahi izatea, herri hizkeraren markatzailatzat har daitezkeenak erabiltzea. Hori da atal honetan erakutsi nahi izan duguna.

5. Hots dardarkariak Hazparneko libertimenduan

Aurreko atalean adierazi gisan, Hazparneko libertimenduan zirtzilek ahoskatu dituzten dardarkariak aztertu ditugu, hazpandar hiztun gazteen artean dardarkari ubularraren ordezkatzeta zertan den jakiteko. Guztiz gauzatua da ordezkatzeta eta, beraz, ez dute dardarkari hobikaria inoiz ebakitzen? Edo egoera jakin batzuetan ahoskatzen dute? Hala bada, noiz, zein testuingurutan edo zein funtzioarekin ahoskatzen dute hobikaria? Era horretako galderak erantzun nahi izan ditugu.

Libertimenduko parte hartzaileek, oro har, [ʀ] dardarkari ubularra ahoskatzen dute. Libertimenduko emanalditik kanpo parte hartzaileekin izandako solasaldiek ere hala berretsi dute; guztiek beti ubularra ebaki dute, inoiz ez [r] dardarkari hobikaria. Libertimenduko emanaldian bertan ere ahoskera ubularra izan da nagusi. Pertsonaia gehienak antzezteko ebakera ubularra erabili da; besteak beste, Hazparneko haurrak eta gazteak, auzapeza, herriko etxeko agintariak eta, oro har, goi-karguak antzezteko erabili da.

Hala ere, pertsonaia jakin batzuk gorpuzterakoan, dardarkari hobikaria ahoskatu da. Oro har, bere funtzioak kontuan hartuta, bi multzotan sailka daiteke dardarkari hobikariaren erabilera. Batetik, Hazparne inguruko adineko hiztunak edota laborariak antzezteko erabili da eta, bestetik, Hegoaldeko hiztunak gorpuzteko funtzioa izan du. Bi erabilera edo funtzio horiek azalduko ditugu jarraian.

5.1. [r] adineko eta laborari diren hiztunen ezaugarri gisa

Libertimenduko emanaldian Iparraldeko (Hazparne inguruko) adineko hiztunak edota laborariak antzeztean dardarkari hobikaria erabili dute. Hain zuzen ere, bi kasu ditugu. Batean Arberoako (Behe Nafarroa) adineko gizon bat ezaugarritzeko darabilte. Hazparneko ikastolako haurrek urte amaierako besta antolatu behar dute eta, laguntzaile gisa, Arberoako adineko gizon bat ekartzen diete, esperientzia baitu bestetan parte hartzen. Horrela, adineko gizonak Arberoan egindako besta baten berri ematen die eredu gisa eta dardarkari hobikaria erabiltzen du beti: *ede[r]a, seu[r], pe[r]tsona, mozko[r]aldia, fo[r]tuna, Donama[r]tiri, muku[r]u*. Gainera, nabarmendu egiten du dardarkari hobikaria ahoskatzen duela; indar handiagoz ebakitzen du hobikaria gainerako hotsak baino.

Beste kasuan, berriz, laborari den hiztun bat antzeztean ahoskatzen dute hobikaria. Laborariak amodioa behar dutela eta, telebista programa bat egiten dute (*Amodioa pentzean da* izenekoa), laborariak maitasuna aurkitzeko. Parte hartzaileetako bat laboraria da, traktore batekin maitemintzen dena. Laborariak bere gustuak adierazten ditu eta traktorearekin hitzordu bat izaten du; egoera horretan, dardarkari hobikaria darabil beti: *u[r]te, a[r]unt, e[r]opa, izia[r]i, bipe[r]*.

Esan liteke, bada, hiztun zaharrekin eta, oro har, mundu edo ingurune tradizionalarekin lotzen dutela dardarkari hobikariaren ahoskera. Hazparneko hiztun gazteek, hortaz, nahiz eta eurek egunerokoan ez ahoskatu hobikaria, hots horren errealitatearen berri badute; hau da, jakitun dira egun oraindik ere hiztun batzuek erabiltzen dutela. Ideia hori bat dator 3.3. atalean adierazi dugunarekin; alegia, Iparraldeko euskaran dardarkari ubularrak hobikaria ordezkatu duela neurri handi batean eta, hobikariak irautekotan, bereziki adineko hiztunen artean irauten duela. Libertimenduko parte hartzaile gazteek ere adineko hiztunen (eta laborarien) artean entzun bide dute gehienbat hobikaria eta errealitate hori islatzen dute libertimenduan. Laborari batzuei ere ezartzen diete hobikaria, azken batean laborantza mundua ikuspegi, bizimodu eta ohitura tradizionalarekin lotu bide delako. Halaber, pentsa liteke hobikariaren ahoskera hori nahiko ezaugarri nabarmena eta hiztun-talde jakin bati lotua dela eurentzat, libertimenduko pertsonaia batzuk ezaugarritzeko balio baitu.

5.2. [r] Hegoaldeko hiztunen ezaugarri gisa

Libertimenduan Hegoaldeko euskal hiztunak antzeztu behar dituzten guztietan, dardarkari hobikaria ahoskatzen dute parte hartzaileek; dardarkari hobikaria Hegoaldeko hots gisa identifikatzen dutenaren seinale litzateke (Artzelus 2021: 135). Hiru Hegoaldeko pertsonaia

agertzen dira emanaldian: kontzertu bateko bi laguntzaile, bertsolari bat eta ikertzaile bat. Guztiek [r] ahoskatzen dute kasu guztietan.

Lehendabiziko kasuan, kontzertu bat irudikatzen da, non abeslariak eta entzuleak dauden. Tartean, kontzertuko sarreran dauden bi laguntzaile agertzen dira (txaleko horiz jantzita), Hegoaldekiko datozenak, eta sarrerez eta protokoloaz hitz batzuk esaten dituzte. Hegoaldekoak direla adierazteko, besteak beste, dardarkari hobikaria ahoskatzen dute: *kob[r]atzeko, beha[r]a, sa[r]jera, p[r]otokoloa, abe[r]*.

Bigarren kasuan, bertso saio bat antzezten da, non lau bertsolarik hartzen duten parte. Gai batzuk ematen zaizkie (Palestina-Israel gatazka, Hazparneko gaztetxearen aurkako epaiketa, librtimendua bera, ikastoletako debekuak, etab.) eta bertsolariek bertsoak bota behar dituzte. Bertsolarietako batek Hegoaldeko hiztun bat gorpuzten du eta dardarkari hobikaria ebakitzen du: *be[r]iz, kuad[r]illa, edoze[r], lapu[r]tzen*.

Azkenik, hirugarren kasuan, aipatu berri dugun bertso saioko gaietako bat librtimenduen ikerketa izan da; hain zuzen ere, Gipuzkoatik datorren ikertzaile batek Hazparneko librtimendua ikertzeko helburua du eta Hazparneko bolantek (dantzariak) librtimenduen ezaugarriak azaltzen dizkiote. Gipuzkoar ikertzaileak, bereziki, galderak egiten dizkie eta, horretarako, dardarkari hobikaria erabiltzen du: *nato[r], ent[r]ebista, no[r], Hazpa[r]nen, ona[r]tuko, ge[r]tatzen*.

Esan liteke, kasu guztietan, Hegoaldeko hiztunak direla adierazteko ezaugarri nagusietako bat dela dardarkari hobikaria; horrekin batera, besteak beste, gaztelaniako maileguak ere erabiltzen dituzte: *pues, guapoa, kuadrilla, aber*. Hobikariaren erabilera horrek baieztatzen du, neurri batean, 3.2. atalean aurreratu gisan, Hegoaldeko eta Iparraldeko hizkeren arteko aldeetako bat markatzen duten ezaugarri direla dardarkariak eta hiztunek ere hala bizi dutela. Dardarkari hobikaria Hegoaldeko hiztunen ezaugarri litzateke eta ubularra, Iparraldekoen ezaugarri. Nahiko lotura finkatua eta zabaldua dela pentsa liteke, kontuan izanda hots bat edo beste erabiltzeak alde bateko edo besteko hiztuna identifikatzeko balio duela. Elebitasunak euskararen ahoskeran izan dezakeen eraginaren berri izateko eta horren inguruan gogoeta egiteko gertakari interesgarria da, baita hizkuntzaren estandarizazioari begira kontuan izateko alderdia ere.

6. Ondorioak

Artikulu honetan, euskarazko dardarkarien aferan Iparraldean dagoen dardarkariaren ahoskunearen aldakortasunari heldu nahi izan diogu, hain zuzen ere, dardarkari hobikariaren eta ubularraren artean dagoen aldakortasunari. 3.1. atalean erakutsi bezala, zenbait autorek jada

duela zenbait urte egindako baieztapenen erakusgarri ekarri ditugu libertimenduetako antzezleen (zirtzilen) ahoskerak. Ukaezina da Iparraldean dardarkari ubularra nagusitzen ari dela, eta hiztun gehienengan erabat nagusitu dela dardarkari ubularra. Gure corpusean ikusi ahal izan dugu (5. atala) Hazparneko gazteen artean dardarkari ubularra orokorra dela; libertimendu emanaldiko zenbait egoera (eta pertsonaia) lirake salbuespen. Beraz, ezin uka daiteke Hazparneko hiztun gazteek dardarkari hobikaria ahoska dezaketela. Nahiz eta egunerokoan eurek ez erabili, berariaz ebaki dezaketen hotsa izaten jarraitzen du. Esan liteke euren inguruan dardarkari hobikaria ahoskatzen delako errealitatea presente dagoela oraindik; ez da hots arrotza euren komunitatean, dardarkari ubularrak, neurri handi batean, hobikaria ordezkatua badu ere. Hori horrela, pentsa liteke dardarkari hobikariak lekua duela lan honetako hiztun gazteen fonema inbentarioan; hiztunek berariaz ahoska, hauteman eta oroit dezaketen hotsa baita; fonema, alegia (Donegan & Stampe 2009: 13). Hala adierazten du libertimenduko zenbait pertsonaia (adinekoak, laborariak eta Hegoaldekoak) gorpuzterakoan, hiztun gazteok dardarkari hobikaria ahoskatzeak. Hiztunen hotsen biltegia osatzen duten fonema unitate guztiek ez dute erabilgarritasun eta gertagarritasun bera eta, Hazparneko libertimenduko gazteen ahoskerak aztertuta, dardarkari hobikaria gazteen hots biltegitik ez dela erabat desagertu ondoriozta dezakegu.

3.3. atalean adierazi dugu hots aldaketak ez direla egun batetik bestera gertatzen eta, baliteke, Hazparneko hiztun gazteen fonema sisteman dardarkari ubularrak hobikaria honezkero aski ordezkatua izan arren, oraindik guztiz gauzatu gabe dagoen hots aldaketa izatea. Nolabait esan, dardarkari hobikariak badu hiztunengan oihartzuna eta isla, eta egoera jakin batzuetan, ziurrenik ahalegin bereziarekin, aktiba daiteke hobikaria. Aztergai dugun kasuan, berariaz egindako hautua izan da eta libertimenduko pertsonaia jakinak antzezteko erabili da.

Hazparneko 2024ko libertimenduko datuak gogoan, aski argi geratzen da dardarkari hobikariaren erabilera hiztun zaharragoen ahoskerarekin lotzen dutela gazteek (5.1. atala). Jakitun dira, nolabait, helduen ahoskera desberdina dela eta, horregatik, adineko pertsonak gorpuzteko orduan dardarkari hobikaria ahoskatu dute. Era berean, dardarkariaren ahoskera hobikaria landa eremuarekin eta mundu tradizionalago batekin ere lotzen dute eta hala erabiltzen dute laborari baten papera egitean (5.1. atala). Honetatik guztitik ondoriozta dezakegu, Hazparneko gazteen ikuspegitik, dardarkariaren aldakortasunaren ardatzean dardarkari hobikaria Iparraldeko adineko jendearen eta landa eremuko mundu tradizionalaren marka litzatekeela. Horrekin batera, Hazparneko gazteek dardarkari hobikaria Hegoaldeko hiztunen markatzat ere hartzen dute, hala gorpuzten baitituzte Hegoaldeko pertsonaien ahoskerak (5.2. atala). Izan ere, oro har euskal hiztunen artean Iparraldeko hiztunak dardarkari ubularrarekin

eta Hegoaldekoak dardarkari hobikariarekin identifikatzea aski lotura finkatua eta zabaldua dela esan daiteke dagoeneko.

Bibliografia

- Artzelus, Alex. 2021. *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/51354>.
- Camino, Iñaki. 2016. *Amiküze eskualdeko ^heskuara*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Camino, Iñaki. 2022. *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. Bilbo: EHU.
- Coyos, Jean Baptiste. 2010. Hizkuntza-ukipena. In Oihana Lujanbio (koord.), *Soziolinguistika eskuliburua*, 134-182. Gasteiz: Soziolinguistika Klusterra & Eusko Jaurlaritza.
- Donegan, Patricia & David Stampe. 2009. Hypotheses on Natural Phonology. *Poznan Studies in Contemporary Linguistics* 45(1). 1-31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x>.
- Donegan, Patricia & Geoffrey Nathan. 2015. Natural Phonology and sound change. In Patrick Honeybone & Joseph Salmons (arg.), *The Oxford handbook of historical phonology*, 431-449. Oxford: Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199232819.013.007>.
- Duguine, Maia. 2009. Hazparneko euskaraz bi hitz. *Euskera* 54(1). 193-210.
- Durand, Jacques. 2009. Essai de panorama phonologique: les accents du Midi. In Luc Baronian & France Martineau (arg.), *Le français, d'un continent à l'autre: Mélanges offerts à Yves Charles Morin*, 123-170. Quebec: Presses de l'Université Laval.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. 2020. An acoustic description of Mixean Basque. *Journal of the Acoustical Society of America* 147. 2791-2802. <https://doi.org/10.31219/osf.io/79ayb>.
- Ensunza, Ariane. 2015. *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/16701> (2025/05/02).
- Epelde, Irantzu. 2004. *Larresoroko euskara*. Gasteiz: EHUko doktorego tesia. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Irantzu_Epelde_TESI.pdf (2025/05/02).
- Etchebest, Xantiana. 2017. *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa*. Université de Pau et des Pays de l'Adour & EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/24870> (2025/05/02).
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. 2016. *VI. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskararen eremu osoa*. Donostia: Eusko Jaurlaritza.
- Gaminde, Iñaki, Aintzane Etxebarria, Naia Eguzkiza, Asier Romero & Aitor Iglesias. 2017. Dardarkari anizkunaren aldakortasunaz. *FLV* 123. 29-64. <https://doi.org/10.35462/flv123.2>.
- Hualde, José Ignacio. 2003. Phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 15-113. Berlin: Mouton de Gruyter.

- Hualde, José Ignacio & Ander Beristain. 2019. Bi alofonia-gertakari Azpeitiko euskararen. In Aintzane Etxebarria, Aitor Iglesias, Hiart Legarra & Aitor Romero (arg.), *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*, 209-228. Bilbo: EHU.
- Kruszewski, Nikolai. 1978. On sound alternation. In Phillip Baldi & Ronald N. Werth (arg.), *Readings in historical phonology: Chapters in the theory of sound change*, 64-91. The Pennsylvania State University Press.
- Labov, William. 1999 [1994]. *Principles of linguistic change: Internal factors*. Oxford: Blackwell.
- Ladefoged, Peter & Ian Maddieson. 1996. *The sounds of the world's languages*. Oxford: Blackwell.
- Luku, Antton. 2014. *Libertitzeaz*. Iruñea: Pamiela Etxea.
- Maddieson, Ian. 1984. *Patterns of sounds*. New York: Cambridge University Press.
- Maddieson, Ian. 2013. Uvular consonants. In Matthew S. Dryer & Martin Haspelmath (arg.), *WALS Online* (v2020.4). Zenodo. <http://wals.info/chapter/6> (2025/05/02).
- Mitxelena, Koldo. 1990 [1961]. *Fonética histórica vasca (ASJUren Gehigarriak 4)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Oñederra, Miren Lourdes. 1998. Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak. *Euskera* 43(2). 439-449.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2016. Sobre seseo, yeísmo y otras cuestiones relacionadas con la pronunciación del español en el área vasca. In Dolors Poch Olivé (arg.), *El español en contacto con las otras lenguas peninsulares*, 83-102. Madril & Frankfurt: Iberoamericana Vervuert.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2019. Ahoskera arautzeaz eta ikaste-irakasteaz. *Euskera* 64(2-2). 939-957. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i64.44>.
- Oñederra, Miren Lourdes, Oroitz Jauregi & Irantzu Epelde. 2014. Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum* 18. 75-95. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2504>.
- Oñederra, Miren Lourdes, Agurtzane Elordui, Irantzu Epelde, Pilartxo Etxeberria, Oroitz Jauregi & Jasone Salaberria. 2015. Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du). *Euskera* 60(2). 499-531. <https://doi.org/10.59866/eia.v60i2.130>.
- Padilla, Manu. 2009. Hazparneko euskara XVIII. mendeko testu argitaratugabe baten arabera. *Euskera* 54(1). 183-192.
- Urreta, Irati. 2025. *Euskararen ahoskera eta hizkera-mailak aztertzen*. Gasteiz: EHUko doktorego tesi argitaragabea.
- Zuazo, Koldo. 1998. Euskalkiak, gaur. *FLV* 30. 191-233. <https://doi.org/10.35462/flv78.1>.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2021. *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. Bilbo: EHU.